

Noiz hasten da modernitatea euskal literaturan? Galdera zahar baten aktualitatea

Ur Apalategi

Université de Pau et des Pays de l'Adour

Laburpena

Modernitatearen hasieraz hitz egin izan da gure literaturaren historietan, gehienetan bere etorrera ospatzeko, bukaera zorionsu gisa. Ziur ote gaude, alta, zertaz ari garen modernitate literarioa aipatzean? Kontzeptua bera definitu eta adosteko beharretik abiatzen da honako artikulua, betebeharrak zientifiko horri erantzuten ahalegindu ostean euskal literaturaren historiaren berrirakurketa berritzaile bat proposatu nahian.

0. Euskal literaturaren historiaren jite teleologikoa

Kokapenez periferikoak izateaz gain mendeetako azpigarapen (nahiz atzerapen) egoera pairatu duten esparru literarioetan modernitatearen auziak garrantzi neurritz kanpoko hartu izan du. Izan ere, halako literaturetan modernitatearen iristea *egiazko* literatura bat lortzearen sinonimotzat jo ohi da. Horregatik, modernitatea iristen den ber, bat-batean, euskal literaturaren historiografoak lasaitua hartzen du badakielako atzean geratu direla mende ilunak, berrerosia geratzen dela —hitzaren esanahi erlijiozkoan— gure iragan literario *lotsagarria*. Egia esan, historia hori idazten ez zatekeen hasiko (edo ez zatekeen idaztera ausartuko) ez balu izan gogoan edo begien aurrean bere azkena, alegia modernitatearen etorrera euskal letren esparrura. Izan ere, euskal literaturaren historia guztiak, salbuespenik gabe, inplizituki teleologikoa dira.

Esanguratsua da hain zuzen modernotzat jotzen den lehen idazle belaualdia —Olerkariena— izatea euskal literaturaren historia egiten saiatu zen lehenena. *Euskal esnalea* aldizkarian agertu zen, 1927an, Orixek idatzitako «Euskal literatura'ren atze edo edesti laburra» izeneko testua. Jakina, Orixe ez zela literaturari dagokionez modernozalea badakigu, eta ezin izango da aurkitu bere liburuxkan modernitate literarioaren aldeko aldarririk. Baina hala eta guztiz ere, Orixeren historia hori teleologikoa da eta *berrikuntza* baten etorrera berreroslearen ondorioz eta berari esker idatzitakoa. Orixek bere historia idatz badezake ez da modernitate literarioaren etorrerari esker, baizik eta nazionalismoak dakarren modernizatze ideologiko-linguistikoaren agerpenari

esker. Hona zer dioen bere historiaren hamargarren atalaren hasieran: «Sortu zen Arana ta esnatu da euskera ta inarrosi» (Orixe 2002: 73). Hamabigarren eta azken atalean, berriz, lotsatik harrotasun berraurkitura berrikuntza horri esker nola iragan diren kontatzen digu: «Gure euskera parragarri edo negargarri gelditu zitzaigun ainbesterainoko erderakeriz. Galduxe ginen. Aranatarren oldar edo indarkarekin eta guzian su-garrarekin ogei urtetik onata errutixko ekarri dugu. Garbituz eta landuz deramagu, eta emendik arontza lotsarik gabe atera dezakegu aurpegia» (Orixe 2002: 79). Ibon Sarasolaren *Historia Social de la literatura vasca* (1982) ezagunean ere, funtsean, nazionalismoaren agerpenak (eta bere bilakaera heterodoxoak) dakartzan modernizatze ideologiko-linguistikoak hartzen dira gure historia literario txiroaren berrerostearen mugari gisa —1901 eta 1964—. Orixeren «Gure mendea: Arana eta inguru-koak» kapitulari egitura aldetik guztiz homologikoa den kapitulu berri bat gehitzen dio Sarasolak zeinetan nazionalismoaren barne berritze ideologiko heterodoxoa berrikuntza linguistiko bati lotua ageri den (euskara batuaren agerpenari, kasu honetan).¹ Modu berean, hala Orixerenean nola Sarasolarenean, bukaerak justifikatzen/salbatzen du aurreko guztia (azpigarapena, atzerapena). Hona nola deskribatua den *aurreko guztia* Sarasolaren testuan: «Los escritores clásicos no eran más que una masa de autores vulgares, toscos, insignificantes y sin calidad alguna, cuya lengua corrompida empañaba el espejo transparente y nítido de una cultura vasca [...]» (Sarasola 1982: 77). Aurreko guztia, hortaz, bukaerari esker, *happy end* modernoaren graziaz zaigu sopotagarri. Ondoriozta liteke gure historialari zenbaitentzat (gehienentzat ez esatearren) Juduen exodo luzea bezalakoa dela euskal literaturaren bidaia, modernitatearen lur prometitua ukitzen duen arte.

Hemendik aurrera, baina, galdera honakoa da: nola kontatu modernitatearen iritsiera edo agerpena euskal literaturan? Eta, batez ere, noiz eta norekin abiarazi modernitate literario euskalduna?

1. Zer da modernitate literarioa?

Aurreko atalaren amaierako galdera horiei erantzun aurretik ezinbestekoa iruditzen zaigu modernitate literarioaren kontzeptuaz gogoeta egitea. Gogoeta hori da, beharbada, artikulu hau justifikatzen duena, iruditzen baitzaigu ez dela benetan hartu astirik modernitate literarioa definitzeko orain arte idatzi diren euskal literaturaren historietan. Zer da modernitate literarioa? Kontzeptu historiko eta historizitateduna al da, ala anhistorikoa? Gauza bera ote dira modernitate literarioa eta modernitate historikoa? Berdinak al

¹ Orixerenean: Sabino Aranaren nazionalismoa+euskara garbia=literaturaren berritzea eta lotsa kulturalaren arotik irtetea. Sarasolarenean: nazionalismo heterodoxoa + euskara batua = literaturaren berritzea eta lotsa kulturalaren arotik irtetea.

dira modernitatea eta modernismoa? Beti batera al doaz autonomia literarioa eta modernitatea? Hona zenbait galdera gogoeta egituratzen hasteko. Ezin hasi euskal literaturaren modernizatzeko prozesuaz hitz egiten erantzunak eman aurretik.

1.1. *Modernitatearen historizitatea edo/eta anhistorizitatea*

Barrokoaren kategoriarekin gertatzen den legez bi modutara uler daiteke modernitatea. Batetik, kategoria historiko eta historizagarri gisa, bestetik kategoria anhistoriko eta zikliko gisa (azken kasu horretan bere dimentsio estetiko lehenetsiz). Ikuspegi historizista bera ere, bestalde, bitan zati daiteke. Batetik modernitate literarioaren agerpena fenomeno historiko bakar eta errepikaezin gisa har liteke. Ikuspegi horretatik, esaterako, modernitate literarioa 1857an has liteke *Madame Bovary*ren eta *Les Fleurs du mal*en epaiketekin (hori dio Bourdieu (1992)), baina, jakina, beste autore batek, edo beste historiografia nazional batekin beste nonbait/noizbait kokatuko dute modernitate literarioaren *big banga*). Bestetik, modernitate literarioaren historizitatea pentsatzeko bigarren moduan arabera, garai bakoitzari bere modernitatea legokioke, hitzaren etimologiak interpretazio horretara gonbidatzen gaituelarik («modo» adberbioak latinez «orain» edo «berriki» esan nahi du, eta «modos» hitzak, berriz, grekeraz «gaur»). Modernitatea, ikuspegi horretatik hartuta, egunero hasten den zerbait litzateke eta bi motatako obrak leudeke: batetik modernitate-gaurkotasun horren izpiritua harrapatzea lortzen dutenak edo horretan saiatzen direnak —pentsalari alemandarren *zeitgeist* delakoa (garaiaren izpiritua)— eta bestetik lortzen ez dutenak edo horretan saiatzen ez direnak (jarrera tradizionalista edo erreazionario bat kontzienteki hartuz, adibidez, edo sinpleki ez iritsiz *zeitgeista* kaptatzera dohai eskasiaz). Ikusten denez, historizitatea bera bi motatakoa izan liteke eta bata ez du zerikusirik bestearekin. Bestetik, gorago iragarri moduan, kategoria artistiko anhistoriko gisa ere uler daiteke kontzeptua, alegia, modernitatea jarrera estilistiko-tematiko identifikagarri bat izan liteke, ideia edo eginmolde erreperitorio finko eta mugatu bati lotua (kontamoldeak edo erreperitamentuak krisian jartzeko joera, erreflexibotasuna, oldarketa ideologikoa balio dominanteekiko, eta abar). Jarrera literario hau edonon eta edonoiz ager, desager edo berrager liteke. Bere agerpen-desagerpenak ziklikoak lirateke² eta hortaz teorikoki posible da neo-modernitateaz mintzatzea (neo-klasizismoaz ala neo-barrokismoaz hitz egiten den moduan) erreperitorio hori berrerabiltzen den bakoi-

² Orixe eta Lauaxetaren klasikotasunari buruzko gerraurreko eztabaidak argi dezake puntu hau. Orixerentzat klasikotasuna jarrera estetiko identifikagarri eta finko bati lotua dago (oreka, harmonia, sobrietate emozionala); Lauaxetarentzat, aldiz, noizbait klasiko bihurtzeko baldintza, paradoxalki, moderno izatea da. Orixe, beraz, klasikotasunaren ikuspegi anhistorikoa dauka, eta Lauaxetak, berriz, dinamikoa eta historizagarria.

tzean. Beste kontu bat litzateke —munta handikoa gainera baina lekuz kanpo legokeelako hemen garatu ezingo duguna— jakitea ea erreperitorio tematiko-formal horri buruzko adostasunik lor ote daitekeen historialarien artean. Adibide bakar batez arazoaren hedadura irudikatzen laguntzeko, modernitate literarioa Historiaren aurreko eszeptizismoari lotua ote dago (Flaubert 1857), ala baikortasun intrintsekoki iraultzaile bati (modernismo surrealistaren zati bat komunismoari lotua egon zen, esaterako)? Azken zalantza horri erantzun partzial bat eman dakioke modernitate literarioa eta historikoa bereiziz, beharbada.

1.2. *Gauza bera ote dira modernitate literarioa eta modernitate historikoa?*

Jakina ezetz. Historialarientzat modernitatea 1453an kokatzen da (otomanoek Konstantinopla harrapatzen dutenean) edota 1492an (Amerika deskubritua delarik), edo XII. mendean... edo Xabier Montoia parafraseatuz, David Bowiek ilea moztu zuenean. Postmodernitatearen pentsalari ezagunenetakoa den Jean-François Lyotard-ek (1979) zioen modernitatea iraungitzen dela —eta postmodernitatea hasten— metanarrazioekiko daukagun fedea galtzen denean. Kasu horretan, zein modernitatez ari da Lyotard? Literaturaren modernitateaz ala Historia orokorrarenaz? Badirudi bigarrenaz ari dela, nahiz eta, jakina, lehenak eta bigarrenak nolabait artikulaturik egon behar duten. Eta hain zuzen, horretan datza zailtasuna: nola daude artikulaturik Historiaren modernitate orokorra eta literaturarena? Kontsideratzen badugu, demagun, protestantismoa modernitate historiko orokorraren agerpenaren osagai nagusietako bat dela, ez ote daiteke erran garai historiko hartako idazle protestanteak modernoak direla? Erasmo ez ote da idazle modernoak? Pentsamenduaren historiari begira, balirudike baietz. Ez ordea, automatikoki, literaturaren historiari begira. Gurera etorritz, esan liteke, kasurako, euskal nazionalismoaren agerpenak Euskal Herriaren aro historiko modernoan sartzen gaituela, baina nazionalismoaren agerpenak ez du euskal literatura bere aro modernoan automatikoki eta berehala sarraraziko. Urte batzuk itxaron beharko dira Txomin Agirrearen literatura ez modernotik Olerkarien literatura modernoalera igarotzeko, nahiz eta Txomin Agirre nazionalismoaren agerpenaren garaikide izan. Halere, sentitzen dugu, nola edo hala, nazionalismoaren agerpena eta Olerkarien modernitate literarioa artikulaturik daudela. Beste paradoxa bat ere aurki dezakegu gogoetaren puntu honetara iritsita. Mugimendu aitortuki anti-moderno bat bihur liteke, historikoki, modernitatearen ikur edo eragile. Edo, zehazkiago formulatzearen, subjektiboki anti-moderno gisa pentsatu eta bizi duguna, bihur liteke objektiboki modernitatearen ikur edo eragile. Erromantismoaren zati handi batekin hori gertatzen da. Esaterako, Rousseauaren primitibismoarekin. Edo, berriz ere Sabino Aranari helduz, euskal nazionalismoarekin. Sabino ez zen ideologikoki edo kulturalki modernozalea, baina bere jardunak efektu modernizanteak izan zi-

tuen objektiboki bai euskal politikagintzan, bai euskal kulturaren. Mugimendu erreakzionarioen efektu paradoxal ezaguna da hau, Oteiza batek oso modu konzientean baliatua (atzeraka begira arraunean aritzeak aurrera eramaten gaitu).

1.3. *Gauza bera al dira modernitatea eta modernismoa?*

Literaturaren eremuan geldituz, orain, galdera berri honi erantzun behar diogu. 1873an Rimbaud poeta gazteak (1873) adierazi zuen, *Une saison en enfer* olerki bilduman: «Il faut être absolument moderne» (kosta lain kosta modernoak izan behar dugu). Mugimendu literario modernistaren aldarri nagusitzat jo daiteke adierazpena. Modernismoa modernitatea deliberatuki bilatzen duen mugimendu artistiko edo literarioari deritzo. Eskuarki modu historikoan ulertzen da —XIX. mendearen azken herenean hasi eta XX. mendearen erdiraino lihoake— nahiz eta interpretazio anhistorikoa ere egin litekeen, Rimbauden esaldian oinarrituz. Behin modernismoaren kontzeptuaz jabetuta, errazagoa da aurreko ataleko paradoxari aurre egitea. Izan ere, efektu objektiboki modernizatzaileak lituzkeen mugimendu artistiko erreakzionario bat ezin baita modernistatzat jo. Modernoa edo modernizatzailea suerta liteke, nahigabe suertatu ere gehienetan, baina inolaz ere ez modernista. gure literaturako adibide bat har dezagun esan berri duguna egiaztatzeko: Jon Mirande. Jon Mirande autore estetikoki eta ideologikoki erreakzionarioa da (erreakzionario iraultzaile edo muturrekoa, hori bai) eta hortaz ezin dezakegu modernistatzat jo. Baina, objektiboki, euskal literaturan berak sartu zuen erreperatorio literarioa *berria* zen (erabili gabea ordurarte) eta efektu modernizatzaile ukalezina izan zuen. Bereizi ditzagun beraz garbiki, aurrerantzean jarrera modernista eta modernitate objektiboa (erran nahi baita kontestuaren arabera).

1.4. *Beti batera al doaz autonomia literarioa eta modernitatea?*

Hona euskal literaturaren historiari buruzko eztabaida askotako gaizki ulertu eta antzutasunaren iturria, baita artikulu honen azken atalean proposatuko ditugun sailkatze batzuen gakoak: autonomia literarioa eta modernitatearen arteko nahasmena. Hitz pare bat, hasteko, autonomiaren kontzeptuaz. Autonomia, jakina denez, etimologikoki nork bere buruari araua ezartzeko daukan gaitasuna (askatasuna) da. Pierre Bourdieuren obran esanahi orokor hori izateaz gain beste esanahi zehatzagoa ere hartu du: autonomia artistikoak (edo literarioak) ari da soziologo frantsesa eta zera dio, literaturaz kanpokoak diren beste esparru batzuen eraginetik aske garatzeko gaitasuna dela. Hori dionean, nagusiki hiru dira literatur esparrua kanpotik mehatxatzen duten esparruak: esparru erligiozkoa (obra debekatuen index-aren bitartez, esa-

terako), esparru politikoa (literatura «ofizial» bat bultzatuz, adibidez, bere balore, gai eta forma onetsi nahiz gaitzetsiekin), esparru ekonomikoa (minoritarioegiak liratekeen obrak ez argitaratuz edo ez zabalduz eta best-sellerren eredu editoriala hobetsiz, kasurako). Laugarren mehatxu bat gehi genezake, 1989az geroztik dastatu dezakeguna euskaldunok: norberarenaren ondoan bizi den esparru literario handiago baten itzala eta erakarpen indarra.

Modernitatearen eta autonomiaren kontzeptuen arteko nahasketa neurri handi batean Bourdieuri berari zor zaio, alegia, autonomiaren kontzeptua modan jarri duen autoreari. Kritika literario garaikidean erreferentziatzko bihurtu den *Les Règles de l'art* saiakeran Bourdieuk frantses literaturaren zeharkako historia bat egiten zuen, zeinetan, XIX. mendearen bigarren erditik aurrera haustura modernoa gertatzen zen, Baudelaire (1857) eta Flauberten eskutik nagusiki. Arazoa da, haustura moderno hori Bourdieuk autonomia artistikoaren konkistari hertsiki lotuta aurkezten zigula, bata bestea gabe pentsatzea ezinezkoa bailitzan. Zergatik? Bada, frantses literatur esparruaren bilakaera historikoan gauzak hala gertatu bide zirelako. Hots, modernitatea aldarrikatu/ekarri/inkarnatu zuten autoreak eta autonomia artistikoa defendatu/konkistatu zutenak berberak izan zirelako eta bi gauzak aldi berean egin zirelako. Eredu historiko hori txit erakargarria izanki, beste esparru literarioetan egokitzapenik gabe, bere horretan, erabil zitekeela pentsatu izan da zenbait urtez, harik eta, pixkanaka, eredu horren transposizioa problematikoa suerta zitekeela agerikoa bihurtuz joan den arte. Ez dute gutxi lagundu, egia esan, transposaketa horren izaera arazotsuaren kontzientzia hartzean Antón Figueroren (2001 2010) galiziar literaturari buruzko lanek. Izan ere, esparru literario bakoitza da berezia: bere filogenesia ez da beste batena bezalakoa, ezta pilatutako kapital sinbolikoaren kopurua, ezta pilatutako kapital horren pilatze garaia, ezta, noski, kapital horren banaketa genero eta autoreen artean, aipatu gabe esparruaren egitura logistikoa (argialetxe sarea, irakurlegoa, erakunde literarioak, eta abar). Gurea bezalako eremu diglosikoan —galiziarrean bezala, nahiz ez den dena transposagarri, halaber, eredu galiziarretik euskaldunera— modernitatearen eta autonomiaren arteko harremanak birpentsatu beharra dago, gure historiografia literarioa argituko badugu.

Eredu hau hartu eta besterik gabe euskal literaturara ekartzen saiatzen bagara laster aurkituko gara zailtasun egoera handi batean. Izan ere, gure esparruan modernitate literarioa ez da izan, historikoki, barne bultzada baten ondorioa. Euskal literatura literatura handiagoeekin homologatzeko nahiaren ondoriotzat har dezakegu gure lehen idazle moderno/modernisten jarduna. Kanpoko eredu modernoa kopiatuz sortu da gure modernitate literarioa. Eta ahalegin horretan modernitate literario frantses/europarraren gaiak eta formak mailegatu dira, berorien oinarrian eta abiapuntuan zeuden zio sozio-kultural sakonekiko konexiorik gabe. Autonomia artistikoa lortzeko nahia da zio horietako nagusia, beharbada.

2. Euskal modernitate literarioak

Has gaitezke gure historia literarioan modernitateak izan duen eta daukan tokia beste modu batera begiratzen. Obrak, autoreak, taldeak eta mugimenduak beren modernitatearen arabera neurtu eta sailkatu ahal izateko honako irizpideak proposatzen ditugu, orain arte esandako guztia gogoan dugula:

- gaurkotasun historikoa (euskal, europar nahiz mundu mailako gizartearen eta kezka orokorren irudi egunekoa ematen duten ala ez, *zeitgeist*aren kaptazio ahalmena alegia)
- konszienteki berritzaile diren ala ez (bai tematikoki, bai formalki, bai linguistikoki)
- autonomia artistikoa defendatzen duten ala ez (modernitate sistematikoa)
- sinkronizatuta dauden ala ez mundu mailako modernitate literarioarekin (modernitate metasistemiko edo globala, hots, Pascale Casanovak (1999) modernitate literarioaren «Greenwich-eko meridianoa» deitzen duenarekiko hurbiltasuna edo urruntasuna).

Lau irizpide hauen konbinaketak lagunduko digu hobeto besarkatzen gure modernitate literario ezberdinen bilakaera historikoa.

2.1. *Modernitate «zaharrak»*

Ezin dezakegu jarraitu modernitatearen auzia xx. mendera mugatzen gure literaturaz mintzo garelarik, gehienetan egiten den moduan. Ikusmolde murriztaile horrek bakarrik balio du modernitate literarioa zentzu historizatuan hartuz gero (Baudelaire eta Flaubertekin hasten den modernitate gisa). Baina, ikusi dugunez, modernitate literarioa askoz ere kontzeptu zabalagoa eta anizkunagoa da beste irizpide batzuk ere aintzat hartzen diren unetik.

Gaurkotasun historikoaren edo modernitate zibilizazionalaren irizpideari heltzen badiogu gure literatura idatziaren Berpizkundeko fundatzaileak lehen modernitate mota baten ordezkari izan behar ditugulakoan gaude. Bernat Etxepare (1545) eta Joan Perez de Lazarragaren obrek gaurkotasun historiko erabatekoa dute. Luzaz uste izan denaren aurka, Etxepare ez da post-Ertaroko idazle bat. Ideologikoki guztiz bat egiten du humanisten mugimendurekin, Aurelia Arkotxa eta Beñat Oyharçabalen azken urteotako lanek frogatuta utzi duten moduan.³ Joannes Leizarraga (1571) ere gaurkotasun historikoan koka daiteke zailtasunik gabe, protestantismoaren korronteari lotuz bere lana. Badakigu ez dela literatur sortzaile bat, baina ondo dakigu halaber Bibliaren

³ Cf. Arcocha-Scarcia eta Oyharçabal (2009) eta Arcocha-Scarcia (2011).

itzulpenek Europa osoan izan duten funtzioa hizkera literarioaren finkatze prozesuetan (Alemaniatik hasiz, Luteroren itzulpenarekin).

Har dezagun orain bigarren irizpidea. Konzienteki berritzaileak ote ziren autore hauek? Etxepare eta Leizarragaren kasuan ez dago dudarik baietz, obren paratestuetan (Etxepareren liburuaren izenburua, eta Etxepare nahiz Leizarragaren hitzaurreak) argi eta garbi aldarrikatzen baitute autoreek beraien berritzaile lana egiten ari direna. Lazarragaren kasuan ez daukagu halako adierazpenen aztarnarik. Artzain literatura egiten du, alegia garai hartan Europar gorteeetan modan dagoen literatura mota bat. Esan daitekeena da, hortaz, euskal kontestu batean neurri batean berritzailetzat jo daitekeela bere ekoizpena (nahiz ez erabat, zeren Erdi Aroaren bukaerako euskal poesia idatzia, eresietakoa kasurako, kodigo gortesau europarren arabera zen jadanik, hein batean).

Hirugarren irizpideari dagokionez ezin da sinpleki erantzun. Izan ere, lehen itxura batean autonomia artistikoaren nozioa neurri batean anakronikoa suerta daiteke XVI. mendean ari garenean. Baina ondo pentsatuta, ez zaigu horren anakronikoa iruditzen. Gauza ezaguna da *cuatrocento* italiarra dela, Europan behintzat autonomia artistikoa garatu zen lehen aroetako bat, arte plastikoetan. Burgesia merkatariaren gorakadak margolarientzako merkatu artistiko bat ireki zuen zeinetan aurreko mendeetan baino librea-goki mugitu ziren, autonomia moduko bat lortuz beraien irabaziei esker. XVI. mendera itzuliz, esan daiteke, humanismoa eta protestantismoa, makro-mugimendu ideologiko eta kultural moduan Erromako autoritate zentralarekiko autonomia aldarrikapenak izan zirela. Alde horretatik, autonomia intelektuaren aldeko mugimendu zabal batzuen partaide gisa har ditzakegu Etxepare eta Leizarraga. Nahiz eta, jakina, autonomia hori erlatibizatu beharra dagoen. Eta erlatibizatu beharra dago zeren beste botere batzuekiko mendekotasuna aurkitzen baitugu idazleen jardun horien atzean: jauntxo babeslearekikoa Etxepareren kasuan (Bernard Lehete, «bere jaun eta jabe»), Nafarroako erregearekikoa Leizarragarenean («bere zerbitzari guzizko xipiak eta guzizko obedientak»). Aipatu gabe bai Etxeparek bai Leizarragak erakusten duten erlijioarekiko sumisioa, edo hobeto esatearren, erlijioaren bertsio humanista eta protestantearekikoa. Baina ez dugu besterik aurkituko Europako literatura handietako testu garrantzitsu askotan. Erlijioarekiko mendetasuna orokorra da garai hartan, salbu, jakina, libretimendu hutserako ekoiztutako testuetan, hala nola Lazarragarena bezalako artzain literaturan. Alde horretatik, Lazarragarena literatura autonomotzat jo daiteke, bere helburua nagusiki estetiko baita.

Azken irizpideari helduz, esan daiteke XVI. mendeko gure hiru autore nagusiak erabat sinkronizaturik daudela garai hartako «modernitate» ideologiko nahiz literarioaren Greenwicheko meridianoarekin. Leizarragaren Testamentu berriaren itzulpena hizkuntza bulgar batera egiten den munduko bederatzigarrena da, kronologikoki. Etxepareren *Primitiae linguae vasconum* (1545) pareka daiteke, edukiaz eta izpirituz den bezainbatean, lau urte ge-

roago argitaratutako Joachim du Bellay-ren (1549) liburu fundatzailearekin. Eta Lazarragaren obrak ere bere garaiko gustu literario europar gortesauaren isla leiala dira.

Laburbiltzeko, XVI. mendeko gure idazleak homologazio kulturalaren logika baten arabera mugitzen dira. Beste hizkuntza handietan egiten dena imitatu nahi dute, euskara ere ordu hartako «modernitatean» sartu nahiz.

Laburrago mintzatuko gara XVII. eta XVIII. mendeko euskal idazleez. Izenik aipatu gabe eta orkorki mintzatuz, esan daiteke homologazio logika hori izan dela nagusi bi mende horietan zehar. Aro luze horretako gure bi autore nagusiak aintzat hartuz gero —Axular eta Oihenart, biak oso desberdinak— esan daiteke zorte txarra izan duela euskal literaturak autoreok ez direlako aritu europar mailan garai hartan protagonismo gehien hartu duten generoetan. Izan ere, bai Axularrek (1643) landu duen aszetismo kristauaren generoa, bai Oihenartek landutako poesia barroko neo-petrarkista, argitaratu ziren garaian ez baziren modaz pasatutakoak, denboraren iragazki gupidagabeak guztiz baztertu ditu europar kanon literarioaren erdigunetik.

Azken hitzak bi autore hauei buruz, azpimarratzeko ez direla XVI. mendeko gure idazleak bezain «modernoak», gisa guziz. Izan ere, Axularren kasua hartzen badugu, autonomia ideologiko-kulturalaren irizpidetik eta gaurkotasuna errepresentatzeko ahalmenaren irizpidetik begiratuta atzera pauso nabarmena egiten da Leizarraga eta Etxeparerekiko. Axularren obra kontrarreformaren bozeramaile euskaldun ofizialarena bezala irakur liteke eta bere garaiko *zeitgeist*aren kaptaziotik urruntzera darama. Uneoroko autozentsura praktikatzen duenez, Axularren obran bere garaiko euskal trajedia politikoen aztarnarik ez da batere agertuko. Ikusten denez, autonomiarik eza gaurkotasunik ezarekin hertsiki lotua agertzen da kasu honetan. Oihenarten kasuan arazoa bestelakoa da. Bere euskarazko testuetan *zeitgeist*etik moztuta ageri da (latinezko *Notitian...*, ez bezala). Errefrau eta poesien bildumaren frantsezko hitzaurrean adierazten duenez, metrika klasikoa euskaraz ere praktika daitekeela erakutsi nahi izan du. Klasizismo aitortza bat da. Haatik, eta paradoxa ez da txikia, Oihenarten lan poetiko klasizista (klasizista Greenwicheko meridiano europarrarekiko) objektiboki berritzaile agertzen da euskal kontestu literario murriztean. Zergatik? Bada, inork ez duelako halako zehaztasunez eta anbizio estetikoaz landu poesia euskaraz ordurarte.

2.2. *Modernitate anti-modernoaren asmakuntza: Herder-en jarauntsi euskalduna*

Gure artikuluko bigarren atalean esan dugunez, mugimendu erreakzionario kontserbatzaileak ez dira paradoxarik gabeak eta askotan objektiboki aurrerapenak ekartzen dituzte (sozialak, ideologikoak, artistikoak) eta modernitate ez aldarrikatu baten nahigabeko adierazle bihur daitezke. Hori gertatzen da, gure aburuz, Herderen pentsamenduaren ildotik garatutako europar

erromantismo herrizalearekin. Herder pentsalari aleman aurre-erromantikoa da, bere filosofia osoa Voltaire-en ideologia arrazionalista-elitistaren aurka eraiki zuena. Labur eta sinplifikatuz: Voltairek dio nazio batzuk besteen gainetik daudela (Frantzia, jakina), arrazoiaren argia beraien hizkuntzan garatu delako eta obra zibilizatzailea burutu dutelako mendeetan zehar. Herderrek erantzuten dio nazio guztiak direla interesgarri, nortasun berezi baten (*volksgeist*) eramale diren unetik. Biodibertsitate kulturala defenditzen du Herderrek eta berdintasun demokratikoa, herrien artean. Erlatibismo kulturalaren aitatzat jotzen da. Voltairek kulturaren ikuspegi elitista dauka eta kosmopolita (erraza eta erosoia europar elite guztia frantsesez ari delarik...). Herderrek kulturaren ikuspegi herrikoia defenditzen du: nazio germaniarraren elitea gaitz kosmopolitak joa denez (hots, frantsesua dagoenez), baserriarrengan aurkituko da jatortasun kulturala (hizkuntzaren garbitasuna eta ahozko literatura herrikoia altxorra) eta nazioa berpizteko indarra. Alemaniarraren nazioan ideia horiek oihartzun handia izanen dute Herder hil ostean, bereziki Napoleonen tropak etxean izango dituztenean (1806an, Ienako batailaren ostean). Baina pentsamendu horrek oihartzun are handiagoa izango du inperio handien menpe bizi diren Europako hainbat herri txikitari (Balkanetan, Ipar Europan, baita, noski, Euskal Herrian ere). Herderrek bere obra ezagunenean (1784-1791)n euskaldunak aipatzen ditu, baita deitzen ere literatura batez hornitzera, *volksgeist* euskalduna munduari eskaintzeko. Gure Humboldt-ek Herderen eragin handia izan zuela ezaguna da eta baliteke hizkuntzalari Moglekin hemen gaindi ibili zenean ideia hauek utzi izana *Peru Abarkaren* egileari. Mogelen eleberri dialogatua 1802koa da, eta Humboldt 1801ean egon zen hemen bi hilabetez.

Datu hauek, jakina, *Peru Abarka* (1802) beste begi batzuek irakurtzera eta interpretatzera bultzatzen gaituzte. Azkoitiko zalduntxoaren bigarren belaunaldiko kide guztiz ilustratua zen Mogelen obra ezin dugu anakronismo literario bat gehiago bezala irakurtzen jarraitu. Are gutxiago protoeleberri aurre-karlista bat bezala. Juan Vivesen *Diálogo de la lengua*ren eragin errenazentista aipatu izan da, iturri posible moduan. Eta izan liteke iturrietako bat, baina XVIII. mendeko literatura —Diderot eta Rousseau, besteak beste, bata maisua eta ikaslearen arteko eleberri dialogatuarengatik, bestea «bon sauvage» primitiboaren mitoarengatik— eta pentsamendu europar ilustratua —frantsesa nola alemana, *Lumières*ak nola *Aufklärung*— ez kontuan hartzea *Peru Abarka* irakurtzerakoan huts egite galanta iruditzen zaigu, obraren modernotasun paradoxikoa ez ulertzera eramango gintuzkeena. *Peru Abarka* —asmatzen duen pertsonaia ikonikotik hasita, alegia baserriar jakintsuarena— bere garaiarekiko gaurkotasun ideologiko-literario erabatekoa duen obra da. Euskal *volksgeista* harrapatzen saiatzen delako esan dezakegu *zeitgeist*a ere bidenabar harrapatzen duela (hain zuzen, *volksgeist*aren ideia bera delako ordu hartako modako kontzeptua). Arazoa da korrante literario europar-herderiar-erromantiko-herrikoia ez dela modernozalea edo aurrerakoia (ilustrazio frantsesaren zentzuan, bederen). Tradizio herrikoien eta iragan

urrun bezain loriatsuaren berreskurapenean oinarritzen duenez pentsamendu horrek nazio txiki eta zapalduaren berpizte kultural eta politikoa, bada, modernitate arrazionalista frantsesetik kanpo kokatzen du bere burua, deliberratu. Modernitate hori baita, preseski, bere etsai mortala.

Berritzaile sentitzen ote zen Mogel bere eleberria idazterakoan? Uste dugu baietz. Obraren azpiegitura ideologikoa hain da gardena irakurtzeko tresna egokiak dituenarentzat ezen ezin baita zalantza izpirik izan. Mogelek bazekien iraultza intelektual (eta literario) bat proposatzen ari zela, ez izan arren iraultza modernista bat. Zertan zetzan iraultza? Homologazio kulturalaren logikatik irtetean. Lehen aldiz euskal letren historian (1545az geroztik, behintzat) *Peru Abarkak* euskal literatura europar literatura handiekiko imitaziozkoa ez den jarrera batean jartzen du. Hortik aurrera (eta joera hau areagotuz joango da mendean aurrera egin ahala), euskal literatura bere originaltasun estetiko-tematikoa lantzen saiatuko da, bere desberdintasun kulturala azpimarratzen. Mendearen amaiera aldera, Lore jokoen kontestuan, Zalduby poeta lapurtarrak euskal arte poetikoaren berezitasuna azpimarratzen duelarik joko du joera horrek bere goia. Zalduby-k (1899) dio euskal bertsolari analfabetoek inoiz ikasi gabe erabiltzen dituztela euskal estrofa mota batzuk, alegia, odolean daramatzagula euskaldunok gure forma literario bereziak.

Peru Abarkaz esan duguna aplikatu dakioke, neurri batean XIX. mendeko euskal literaturgintza guztiari (Txomin Agirre barne). Halere, aurreko azpiatalean Axularrekin eta Oihenartekin gertatzen zen moduan, hemen ere sortzaileak ausartago eta berritzaileago agertzen zaizkigu jarraitzaileak baino. Egin moldeen eta motiboen errepikapenak, jakina denez, literatura higatu egiten du. Txomin Agirreraren eleberrietan ez da geratzen Mogelen izpiritu post-ilustratu eta berritzailearen bihirik ere. Agirrek ez du berritzaile izan nahi. Mogelek mende bat lehenago indarrean jarritako eredu kulturala modu ezin kontserbadoreagoan errepikatzen du.

Eta zer esan autonomia artistikoaren irizpidez, edota modernitate literario mundialaren Greenwich meridianoarekiko hurbiltasunaz edo sinkronikotasunaz? Bada, esan dezakegu hortxe dagoela, beharbada, Mogelen bekatu literario bakarra. Hots, Mogelek literatura naziogintzaren (eta elizaren) menpe uzten du, autonomia artistikoaz axolatu gabe. Esan gabe doa bere ondorengo erromantiko ohiturazale guztiek ere menpekotasun bikoitz hori berretsiko dutela, inolako kontzientzia arazorik gabe. Puntu horretan atzerapausoa nabarmentzen da, Oihenart batekiko edo Lazarraga batekiko. Baina, dena esan behar baita, kontestua ere ez da bera. Badituzte XIX. mendeko euskal idazleek zirkunstantzia aringarri zenbait (euskararen egoera gero eta kezkarriagoa baitetik, eta foruen galera bestetik, naziogintza premiatsu eta lehentasunezko bihurtzen dutenak).

Mundu mailako modernitate literarioaren kanonarekiko urruntzea, berriz, guztizkoa da, espero zitekeen moduan. Homologazioaren logikari uko egin ondoren ezin zitekeen besterik espero. Mogel bat izan zitekeen berritzaile

euskal ikuspegi literario batetik (edo aleman ikuspegi herderiar erlatibista batetik), ez ordea Parisetik edo Londresetik begiratuta. XX. mendearen hasieran, aldiz, Txomin Agirre ez da jada berritzaile inorentzat, ez Greenwichetik ikusita, ezta euskal irakurle batentzat ere.

2.3. *Modernitate autonomo baterantz*

1910a itxaro beharko da —Jean Etxepare «Mirikua»ren *Buruxkak*— homologazio kulturalaren logika berreskuratu eta Baudelaire eta Flaubertekin abiatzen den modernitate literario historikoaren lehen bertsio euskalduna agertzeko. Mende erdi bat paristar formulaziotik euskal bertsiora igarotzeko. Honek Greenwich meridioarekiko gure urruntasunaren berri zehatza ematen digu. Distantzia espazio-tenporala txikiagoa zela dirudi XVI. mendean edo Mogelenean. Konektatuago geunden orduan, gertuago literatur sistema mundialaren gunetik. Mende oso batez homologazioaren logikari uko egin izanak urrundu gaituzke. Geldoagoa da modernitate literarioarekiko erreakzio XX. mende hasieran.

Jean Etxepareren liburua ez da formaren aldetik modernista. Klasiko samarra dela ere esan daiteke, idazkerari dagokionez. Baina kontuz, klasikotasuna aipatzen dugunean klasikotasun frantsesaz ari gara, ez euskaldunaz. Horregatik, ez da modernitaterik gabea Etxepareren prosa euskal kontestura ekarrita. Izan ere, inork ez du horrela inoiz idatzi euskaraz. Etxepareren prosa izugarri aberatsa, linguistikoki sofistikatua eta estetikoa da, eta inork ez bezalako erregistro jasoa darabil, nahieran, erregistro herrikoia goarekin beharren arabera aldizkatuz. Exigentzia maila hori bera, besterik gabe, modernizatze bat da euskal literaturarentzat. Eguneratze bat kalitatezko parametro literario europarrekiko.

Halere ez da hori Etxeparek dakarren berrikuntza garrantzitsuena. Literatura handiekiko homologazioaren logika berrezartzeaz gain Etxeparek autonomia artistikoaren desira berpizten du euskal idazleengan. Gure historian lehen aldiz beharbada (Xahoren heterodoxia erlijiozkoaren baimenarekin, jakina), euskal idazle batek euskal literatura erlijioaren orbitatik kanpo kokatzen du, baita moral burgesaren eremutik ere. Eta ez Oihenart edo Lazarragak bezala egin ezaz, baizik eta erlijioa eta moral burgesa esplizituki literaturaren etsai izendatuz. *Eskualduna* aldizkari txit katolikoan argitaratutako artikulu sorta da *Buruxkak*, baina liburuan, kontrabandoan, beste bi testu argitaragabe sartzen ditu Etxeparek. Bi testu horiek «Nor eskola emaille? Zer irakats?» eta «Amodioa» dira. Horietako lehenean Etxeparek Elizaren zilegitasun kulturala arbuatzen du, hezkuntzaren kudeantzan tokirik ez duela aldarrikatuz. Bigarrenean moral burges eta giristinoa hankaz gora uzten ditu sexuaren gai tabua maltzurki eta ironia dosi eder batekin ilustratuz. Nietzsche-ren zale honek badaki zer egiten ari den, dudarik gabe. Jasoko duen zigorra, modernitate hori jasotzeko oraindik prest ez dagoen euskal literatur mundutxotik etorriko

zaion zentsura izango da. Liburua irakurleen eskuetara iritsi aurretik geldituko dute bere *lagun* idazleek.

Etxepare «mirikuaren» modernismorik gabeko autonomia saio zentsuratu horren ondotik, gerraurreko Olerkarien autonomia gutxiko modernismoaren txanda etorriko da. Esan daiteke Etxeparek falta zuena dakartela Olerkariak —berrikuntza formala, modernismo estetikoa (neolingua arantarekin uztartuta)— baina falta zaiela Etxeparek zekarrena, alegia autonomiaren aldeko aldarria. Orixe, Lizardi eta Lauaxeta berritzaile konzienteak dira, dudarik gabe. Modernitate literarioa dute aldarri eta helburu. Eredu tematiko nahiz formal paristar eta europarrak darabiltzate. Baina eredu gisa erabiltzen dituzten autore sinbolista eta modernisten autonomia artistikoaren aldeko borrokaren oihartzunak ahulak dira, oso, beraien obran eta ibilbidean. Hiru horietatik Lauaxeta da, beharbada, autonomiaren alde gehixeago aritu dena. Moral burgesa ez dute benetan etsai, autore hauek. Lauaxetak «gaxo nago» dioenean ez zaio esaten ari euskal irakurle burgesar nazka eragiten diola bere mediokritate demokratikoarekin kohabitatu beharrak (Baudelairek egiten zuenez). Zergatik? Euskal irakurle burgestik ez dagoelako, ez delako oraindik existitu ere egiten, eta gainera hain zuzen Lauaxeta delako, izatekotan, etorkizuneko euskal burgesiaren kimuetako bat eta Lauaxetak berak EAJren inguruan sortzen ari den burgesia euskaldunaren gidaritza sozialean sinesten duelako euskal masa ez burgesa gorantz eramateko. Antzeppen itxura hartzen du, hortaz, Lauaxetaren autonazka modernistak. Kristautasuna, bestalde, ez da inolaz ere mehatxu gisa aurkezten autore hauen obran, aitzitik. Eta, okerrago dena, hirugarren menpekotasun onartu bat ere agertzen da hiru autoreon jardunean: abertzaletasunarekikoa, edo zehatzago esateko, Eusko Alderdi Jeltzalearekikoa. Literaturaz kanpoko autoritatekiko menpekotasun hirukoitz honen ondorioa modernitate simulakroaren sentsazioa da. Euskal literaturaren historialari eta kritiko askok (gehienek) adierazi izan duten sentsazioa, ondo jakin gabe, maiz, zergatik sentitzen zuten eta nola formulatu asmatu gabe, askotan: «Gure Olerkariak modernoak dira baina...» Azalpena ez da, alabaina, horren konplikatu, baldin eta tresna egokiez hornitzen bagara: Olerkarien modernitatea autonomia artistikorik gabeko modernitate bat da, hots azalekoa da, partez antzeztua. Modernista dira, baina ez osoki moderno, autonomia eskasiaz. Olerkarien benetako supernia ez da parnaso literarioa, Politika-Erljioa binomioa baizik. Modernitate literarioaren antzezpena super-ni Politikoari egindako oparia da. Modernitatea Olerkariak abertzaletasunari egiten dioten eskaintza da, azken honentzat probetxugarria izango delako itxaropenarekin. Sinbolismoaren hautaketak berak —korronte moderno gainditua, garai hartako Europar literaturan— salatzen du modernitatearen erabilera enblematikoa izango dela. Egiazko ekingia modernoa surrealismoaren bidetik joatea, edota beste edozein abangoardismorenetik, izango zatekeen, Greenwicheko meridianora hurbilduz. Baina, abangoardismo europarrak ez ziren ideologikoki uztargariak nazio eraikuntza prozesu abertzale batekin...

Gerraosteko heterodoxoen belaunaldi heteroklitoak pauso handi bat emango du bai autonomia artistikorantz, bai Greenwicheko meridianorantz, nahiz eta abertzaletasunak kontraesanak sortzen jarraitu modernitate literarioaren konkista prozesuan.

Miranderen lana erdizka eta tarteka dago garaiaren izpirituari lotuta. Bada bere obran alderdi ahistoriko eta mitologiko bat ez duena zerikusirik modernitate nahiarekin. Txillardegirena saiatzen da, gero eta gehiago obrak agertu ahala, bere garaia eta garai horri dagozkion kezkek islatzen. Kurioski, Aresti da, beharbada, joera mitologikoak izan arren Mirandek bezala, hobetoen lortzen duena bere garaiaren kolorea eta soinua erretratatzan. Kurioski diogu zeren poesian lortzen du hori eta ez errealismo handiagoa egotzi ohi zaion prosaren generoan. Berritzaile gisa kontzientzia osoz ari direla begibistakoa da, haatik. Belaunaldi ikonoklasta bat egon bada gure literaturaren historian (batez ere tematikoki, ez hainbeste formalki) hori heterodoxoena da. Herderianismoak utzitako iruditeria erromantiko ohiturazale edo folklorizantea lurperatzen dute, amorrutik lurperatu ere. Giro hiritar bat kutsatzen diote (edo ahalegintzen dira behinik behin, ez baita oraindik erraza) euskal literaturari.

Autonomiaren auzira itzuliz, hau baita hemen giltzarria belaunaldi honen ekarpena ulertzeko, Jon Mirande (Txomin Peillenen laguntzaz) izango da literaturaren autonomia modu esplizitoan adieraziko duen lehen euskal idazlea. 1962ko urriko Igela aldizkariaren 4. zenbakiko artikulua batean egingo du, Enbata aldizkari politiko abertzale sortu berriak kritika gogor bat argitaratu ostean Igelaren lizunkerien aurka. Artikulua izenburuak aski sintetikoki adierazten du autonomiaren aldarrikapena: «Igelak azken hitza bere».⁴ Haatik, egoera politiko-linguistikoa agonistikoa izanki frankismoan (baita, neurri txikiago batean, Iparraldean), abertzaletasuna baztertu ezinezko parametroa da belaunaldi horrentzat («geu Enbatakoak bezainbat euskaldun nazionalista gara» diote Mirande eta Peillenek artikulua amaieran): euskarazko literaturaren existentziarako eta garapenerako koadroa bera da abertzaletasunaren bitartez ziurtatu nahi dena. Halere, abertzaletasun ofizialarekiko menpekotasuna egiazko literatura moderno eta autonomo baten garapenerako oztopo dela jakin badakite, ikusi denez. Horregatik, abertzaletasunaren bertsio libre, idiosinkrasiko, erradikal eta anitzak sortuz, belaunaldi heterodoxoak zama politiko hori autonomia artistikoarekin kontziliagarri

⁴ Hona pasarte esanguratsuenak: «[...] gure lehengo numeroa argitara eta hurrengo ENBATAk 1962ko artikulua bat gutzaz ekhartzen zuen, hartan erraiten baitzeraukun zer egin behar genduen eta zer ez egin, erreient (eskola-maixu) batek bere menpeko haurrei predikatzen derauen seriositasunarekin. [...] ENBATAko politikari argituek zuzen osoa dute naski, merkhatu komunaz, Al-Djezair-eko gerlaz edo Espainiako langile-ophorrez duten aburuaren irartzekotz, edo-ta Euskaldunei erraitekotz nola jokhatu behar duten beren herriaren salbatzekotz (hortarako berak aski zuhur eta jakintsu direla iduri ba zaie). Bainan nehondik eta nehola ere ez dadukate eskubiderik geuk hautatu dugun zuzenbidean (euskarazko idazkuntzan) guri leitzione egiteko».

bihurtzeko bidea aurkitzen du. Esan liteke bizimodu edo *ethos* abertzale berri eta antikonformisten formulaketa bera ekintza literario bihurtzen dela autore horien lumapean. Hortik, beharbada, idazle horien exhibizionismo teatrala, autofikzioa erabiltzeko joera eta lehen pertsonan idazteko apeta. *Artista euskaldun gisa ezin dugunez, tamalez, abertzaletasuna saihetsi, bihur dezagun abertzaletasuna bera* performance literario bat, *espektakulo bat*, hori litzateke Mirande, Txillardegik, Aresti, eta Oteiza bezalakoek aurkitutako saihe-bidea. Bestalde, EAJ (eta Enbata) etsai gisa eraikiz harri batez bi txori jotzen dituzte ezen gerrareko Olerkarien belaunaldiak Baudelaire-Flaubert-en modernitate mota bereganatu ahal izateko eskas zuen etsai burges domestikoa eskuratzen dute horrela heterodoxoek, simulakrotik pixka bat urrunduz.

Behin autonomiaren bidea hartuta errazagoa bihurtzen da, jakina, modernitatearen Greenwicheko meridianora hurbiltzea. Esan gabe doa bestalde, Euskal Herritik kanpo eremu kosmopolitetan bizitzea eta ibiltzea ere alde izango dutela heterodoxoetariko batzuek (Mirande, Txillardegik, Oteiza, baita hurrengo belaunaldiko hainbat idazlek) meridianoranzko hurbiltze horretan. Parisen, Bruselan, Buenos Airesen, Ginebran errazago usnatzen eta harrapatzen da *zeitgeist* kulturala. Horregatik meridianoarekiko distantzia tenporala gero eta txikiagoa bihurtuko da urteak aurrera joan ahala: Mirande ez da autore sinkronizatua (oraindik ere sinbolismoari atxekita darrai, nahiz eta Olerkariet bano askozaz ere modu autentikoagoan birsortu korrante moderno zaharkitu hori), baina *Leturiaren egunkari ezkutua* 1957an argitaratzen deanean 19 urte baino ez ditu bere ereduak (Sartrearen *La Nausée* 1938koa da). Arestiren poesia soziala ez da espainiar poesia soziala baino askoz beranduagoa (hamar-hamabost bat urteko tartea dago bien agerpenaren artean). Hurrengo belaunaldia izango da Greenwicheko meridianoko orduan bizitzea lortuko duena. Sinkronizazio erabatekoa Saizarbitoriaren *Egunero hasten delakorekin* dator, 1969an. Horregatik, Saizarbitoriaren opera prima da, ziur aski, modernitate literarioa deskribatzeko erabiltzea erabaki dugun lau irizpideak aldi berean betetzen dituen lehen euskarazko obra: gaurkotasuna, izaera berritzailea, autonomia eta meridianoarekiko sinkronizitatea. Gai ez-euskalduna eta kokapen atzerritarra erabiltzea erabakigarria da autonomia erabatekoaren konkista sinbolikorako.⁵ Bost urte beranduago, gai euskaldunera itzultzean, azken ukaldia emango dio Saizarbitoriak idazlearen autonomia mehatxatzen jarraitzen duen abertzaletasunaren mamuari, *Ehun metroekin*. Eleberri politikoki eszeptiko bat idatziz eta euskal politikarekiko soraiotasuna eszenifikatuz (kaleko donostiar arrunten ahotsaren bitartez) euskal kausa desakralizatu eta super-ni abertzalea behin betiko hiltzen du (edo

⁵ Mirandek eta Txillardegik ere egin zuten, lehenago edo garai berean, gai ez-euskaldunaren eta kokapen atzerritarren aukera *Haur besoetakoan* (1959) eta *Elsa Scheelenen* (1969), baina modernitatearen lau irizpideetako bat falta zitzaien: Miranderen kasuan Greenwicheko sinkronizitatea (eleberri sinbolista baita *Haur besoetakoan*), Txillardegiren kasuan berrikuntza kontamoldean (narrazioa ez dago krisian eleberri «klasiko» horretan).

saiatzen da, zeren irakurleriaren zati handi batek ez zuen hala interpretatu nahi izan testua). Euskal literaturaren *momentum* modernoa, beraz, 1969an koka dezakegu. Hala bada, Saizarbitoria heterodoxoen belaunaldiaren lan kolektiboaren eta pixkananako aurrerapenaren emaitza jasotzera datorren kide berantiar edo oinordeko gisa ikustea proposatzen dugu, haustura baten bozeramaile gisa baino. Jean Etxepareren *Buruxkakekin* 1910ean hasten den *continuum* modernoazale euskaldun baten azken kate-begia litzateke Saizarbitoria.

Momentum moderno horrek 1969tik 1979ra iraungo du. Hamar urte. Bi-tarte horretan esperimentu modernista orotarikoak burutuko dituzte euskal idazleek (*Ehun metro*, *Sekulorum sekulotan*, *Ene Jesus*, eta *Zergatik pan-pox?*, lau adibide ezin paradigmaticoago ematearren).

Gaurdainoko euskal postmodernitate literario ezberdinen historiarekin has liteke artikulua honen balizko jarraipena, hain zuzen modernitatea bera auzitan jartzen hasten direlarik euskal idazleak. *Etiopian* gertatzen da, apika, hori lehengoz, absolutoki moderno izan behar zela aldarrikatzen zuen Rimbauden figura ironia desliluratuaren itu bilakatzen duelarik Atxagak (1978).

Aipamenak

- Arcocha-Scarcia, Aurelia & Beñat Oyharçabal. 2009. «Siglo XVI: Las primicias de las letras vascas». [http://www.basqueliterature.com/basque/historia/klasikoa/XVI.%20mendea]
- Arcocha-Scarcia, Aurelia. 2011. «*Linguae vasconum primitiaeren peritestalitateaz eta euskararen gramatizazioaren primiziaz*». In *ASJU XLII-2*, 1-68.
- Atxaga, Bernardo. 1978. *Etiopia*. Bilbo. Pott Liburutegia.
- «Axular» (Pedro Agerre Azpilkueta). 1643. *Guero*. Bordele: G. Milanges erregeren inprimazaillea baithan.
- Baudelaire, Charles. 1857. *Les Fleurs du mal*. Paris: Poulet-Malassis.
- Bellay Joachim du. 1549. *La Deffence et illustration de la langue françoise*. Paris : Nelson, 1936.
- Bourdieu, Pierre. 1992. *Les Règles de l'art*. Paris: Seuil.
- Casanova, Pascale. 1999. *La République mondiale des lettres*. Paris: Seuil.
- Du Bellay, Joachim. 1549. *Déffence et illustration de la langue françoise*. Paris: Arnoul l'Angelier.
- Etxepare, Bernat. 1545. *Linguae vasconum primitiae*. Bordele: François Morpain.
- Etxepare, Jean. 1910. *Buruchkak*. Tours: Mame.
- Herder, Johann Gottfried. 1784-1791. *Ideen zur Philosophie der Geschichte der Menschheit*. Riga eta Leipzig: Johann Friedrich Hartknoch.
- Leizarraga, Joanes. 1571. *Jesus Christ Gure Jaunaren Testamentu Berria*. La Rochelle: Pierre Hautin.
- Figuroa, Antón. 2001. *Nación, literatura e identidade*. Vigo: Xerais.
- Figuroa, Antón. 2010. *Ideoloxía e autonomia no campo literario galego*. S. Compostela: Laiovento.
- Flaubert. Gustave. 1857. *Madame Bovary*. Paris: Michel Lévy frères.

- Lyotard, Jean-François. 1979. *La Condition postmoderne: rapport sur le savoir*. Paris: Minuit.
- Mirande, Jon & Txomin Peillen. 1962. «Igelak azken hitza bere». In *Igela*, 1962ko urria, 4. zenbakia. Paris.
- Mogel, Juan Antonio. 1802. *Peru Abarca*. Durango: Julián de Elizalde.
- Oihenart, Arnaud. 1637. *Notitia utriusque vasconiaæ, tum Ibericæ, tum Aquitanicæ*. «Orixe» (Nikolas Ormaetxea). 2002. *Euskal literaturaren historia laburra*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Rimbaud, Arthur. 1873. *Une saison en enfer*. Bruxelles: Alliance typographique.
- Saizarbitoria, Ramon. 1969. *Egunero hasten delako*. Donostia: Lur.
- Sarasola, Ibon. 1982. *Historia social de la literatura vasca*. Madrid: Akal.
- Sartre, Jean-Paul. 1938. *La Nausée*. Paris: Gallimard.
- «Txillardegia» (Jose Luis Alvarez Enparantza). 1959. *Haur besoetakoa*. Donostia: Lur, 1970.
- «Txillardegia» (Jose Luis Alvarez Enparantza). 1969. *Elsa Scheelen*. Donostia: Lur.
- «Zalduby» (Gratien Adéma). 1899. «Quelques règles de la prosodie ou art poétique basque». *Eskualduna* 608, 1899-II-10 [<http://lapurdum.revues.org/1684>]